

XIRIMIRIKO ESKOLAKO ARAUAK

1. Barne-espazioan oinutsik edo etxeko zapatiletan ibiltzen gara. Sukaldean eta komunetan izan ezik.
2. Barne-espazioan oinez ibili behar da, eta mugimendu handiko jolasak kanpoan egingo dira, borroka-jolasak adibidez.
3. Barne-espazioan ahots-bolumena zaintzen dugu.
4. Barne-espazioko lan eta jolas-eremuan ezin da ez jan, ez edan. Horretarako jangela edo kanpo-espazioa erabiliko dugu.
5. Altzariak edo lurra zikintzen edo bustitzen badugu, momentuan garbituko dugu. Horretarako behar den materiala erabiliko dugu: trapuak, erratza, zoru-garbigailua...
6. Material eta jostailu bakoitza dagokion eremuan erabiltzen dugu: kanpo-espazioan, tailerrean, liburutegian... Beste leku batean erabili ahal izateko, bidelagunekin adostuko dugu.
7. Lan-materialak mahaian edo lurrean, alfonbra gainean, erabiltzeko dira, ezin dira apaletan erabili.
8. Material edo jostailu bat erabiltzeaz bukatzen dugunean bere lekuan gorde eta erabilitako espazioa txukun utziko dugu.
9. Kanpo-espaziotik arropa zikinarekin sartu behar badugu, harreraraino sartuko gara eta bertan kenduko dugu arropa. Lurra edo bestelakorik zikindu badugu, momentuan garbituko dugu.
10. Lokaztutako botak kanpo-espazioan astinduko ditugu, eta, ahal den heinean, ez gara horiekin sartuko. Lurra zikindu badugu, momentuan garbituko dugu.
11. Kutxak, pertxak, janari-poltsak... erabilera pertsonalekoak dira, hau da, jabearen baimenik gabe ezin ditugu ireki, hartu edo erabili.
12. Oro har, ezin dira etxeko jostailu eta materialak eskolara ekarri. Salbuespena dira euskarri emozionaleko objektuak. Gainontzean, eskolarako ekarpena izan daitekeen zerbait ekarri nahi badugu bidelagunekin adostu beharko dugu, eta haur guztiek erabili ahal izango dute eskolako material bat gehiago izango balitz bezala. Era berean, eskolako jostailu eta materialak ezin dira etxera eraman.
13. Eskolara arropa erosoarekin etorri behar da, lasai zikindu, busti edota puskatu daitekeena.
14. Eskolan eduki beharrekoak: aldatzeko arropa, poltsa bat (arropa zikina etxera eramateko), galtza-xirak, xira, katiuskak, ur-botila, etxeko zapatilak eta nezeserra.